BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA

Aiurri

2016ko otsailaren 5a, 469 zenbakia XI. urtea Andoainen eta Urnietan doan banatzen da

"Bizitza motza da; Gustuko gauzak egiten saiatu behar zara, gustuko tokian"

IKER HERNANDEZ FUTBOLARIA

Inauteri giroan murgilduko dira Andoain eta Urnieta, asteburuan

Ospakizun nagusia larunbatekoa izango den arren, beste egunetan ere gazteei zuzenduriko ekimenak ez dira faltako.

Larunbat eguerdian ihauteri giroan murgilduko dira Andoainen eta Urnietan. Ekitaldi gehiago ere izango dira, baina egun handia bi herrietan larunbatekoa izango da. Goizetik joango da giroa berotzen, Andoainen erraldoi eta buruhandiekin eta Urnietan poteoarekin. Unerik gorena larunbat arratsaldean iritsiko da, mozorro desfilearekin.

Urnietan mitologia ardatz hartuta Idiazabal kalean desfilea arratsaldeko 17:00etan hasiko da. Musika eta dantza jaialdia izango da, besteak beste Buruntzantzan taldearen parte hartzearekin.

Andoainen Txitibar plazatik herrigunera mozorro desfilea abiatuko da, eta ohi bezala jendetza bilduko da ospakizunean parte hartzen eta ikusten. Gau partean DJ festa egongo da Nafarroa plazan.

Aurreko asteburuan kaldereroen ospakizunak egin zituzten Andoainen. Argazkiak eta bideoa ikusgai aiurri.eus gunean.

MOZORRO DESFILEA
Otsailak 6, larunbata
17:00-24:00 Urnietan Idiazabal kalea itxiko dute mozorro desfilerako. Aurtengo gaia mitologia da.
17:00 Andoainen mozorro desfilea Txitibar plazatik.
23:00-03:00 Disko festa Nafarroa plazan.

ANDOAINGO GAZTE EKIMENAK
Otsailak 4, osteguna:
17:30 Beldurraren etxea, Gazte Lokalean.
18:00 Maskara lehiaketaren sari banaketa Urigainen.
Otsailak 5, ostirala:
17:30 Mozorro festa eta merienda Gazte Lokalean.
18:00 Kontzertu bufoa Basteron.

URNIETAKO GAZTELEKUA
Hainbat jarduera antolatu dituzte, 12-16 urte artekoentzat.
Otsailak 5, ostirala:
17:00 Trebetasun probak minutu batean.
Otsailak 8, astelehena:
17:00 Mozorro lehiaketa.
Otsailak 9, asteartea:
17:00 Singstar txapelketa.

Euskal Herriko atzoko eta gaurko herri kirolarien bilkura Urnietan

Urtarrilaren 30ean **Juan Iguaran** Urnietako Eula baserriko semeak herri kirolarien arteko adiskidantzazko bazkaria antolatu zuen. Urnietako bilkura hartan Aiurrik hainbat kirolarien adierazpenak bildu zituen. Horien artean **Aitzol Atutxa** bizkaitar txapeldunarenak.

Berezia da aizkolari txapelduna bilbotarra dela jakitea…

A.A.: 22 urtera arte Bilbon bizi nintzen; ikasketak bukatu nituenean Dimara gurasoen herrira joan nintzen. Bilbon ez zegoen aukera handirik ez entrenatzeko, ezta erakustaldiak egiteko ere. Futbolean, pilotan, aizkoran..., 15 urtetik aurrera erabaki nuen aizkoran serio hastea.

Ibilbide azkarra bezain oparoa…

A.A.: 19 urterekin Bizkaiko txapelduna izan nintzen lehenengo aldiz, bai bakarka, eta baita bikoteka, eta hortik aurrera erreskadan irabazi ditut guztiak. Azken bi urteetan Euskal Herriko txapelduna naiz. 26 urterekin jantzi nuen lehendabiziko Euskal Herriko txapela, azken urteetako gazteena izan naiz, eta oso pozik nago alde horretatik. "Urrezko aizkora" bikoteka, Donostiako "Urrezko kopa" ere irabazi ditut.

[URNIETA, 2-3. ORRIALDEAK]

Udal aurrekontu berria

2012az geroztik aurrekontuen luzapenarekin lanean ari eta gero, Udal ordezkari gehienak aurrekontu berria lortzeko adostasun batera iritsi dira.

[ANDOAIN, 7. ORRIALDEA]

Podemos abiatu da Andoainen

Aurkezpen ekitaldia egin zuten aurreko larunbat goizean, Urigainen. Andoaingo Santana eta Guirado aritu ziren bozeramaile lanetan.

[ANDOAIN, 7. ORRIALDEA]

Korrika egiten hasteko deialdia

"Emakumea korrikalaria" egitasmoa abiatu du Andoaingo Udalak, 35 urtetik gorako emakumeen artean kirola sustatzeko. Izena emateko epea zabalik dago, Allurraldeko bulegoko ordutegian.

[KIROLA, 9. ORRIALDEA]

URTEROKO BAZKARIA EULA SAGARDOTEGIAN

Herri kirolarien urteko bilkura

Joan zen urtarrilaren 30ean, Juan Iguaran Tolosan bizi den Urnietako Eula baserriko semeak antolatuta, Urnietako Eula sagardotegian egindako bazkari baten bueltan elkartu ziren urteroko legez, Euskal Herri osoko 60ren bat herri kirolari. Direnak eta izan zirenak. Bazkari hau estimu handian dute kirolariek, urtean zehar elkarretaratzeko duten aukera bakarrenetakoa baita.

Iker Vicente Saralegi (1997, Otsagi). Aizkolaria

Noiz hasi zinen aizkoran?
Iker Vicente: Ez naiz gogoratzen zein adin izango nuen. Txikitatik ikusten nuen aita aizkoran, bere entrenamendu guztietan egoten nintzen, eta bere babesean hasi nintzen aizkora erabiltzen oraindik oso ume nintzela.

Eta modu serioagoan?
I.V.: 12 urte bete nituenean, orduan hasi nintzen jarraipen batekin entrenatzen, eta orain arte, gero eta serioago.

Aipatuko al dizkiguzu lortutako emaitzak?
I.V.: 13 urterekin hasi nintzen txapelketetan parte hartzen, eta nahiko ongi aritzen nintzen, baina gorputza oraindik garatu gabe neukan, eta beti izaten zen irabazten zidan norbait. Pixkanaka, urte hauetan nire gorputza egiten joan da, eta gaur egun Nafarroako txapelduna naiz. Egia esateko, dena oso azkar etorri da.

Nola ikusten duzu etorkizuna?
I.V.: Gustatuko litzaidake Euskal Herri mailan puntan ibiltzea, Aitzol Atutxak izugarrizko maila dauka, bi aldiz geratu da txapeldun, eta argi dago gehiagotan jantziko duela txapela. Espero dut pixkanaka bere mailara hurbiltzen joatea.

Nolakoa da Ikerren egun arrunt bat?
I.V.: Amak aseguru etxe batean egiten du lan, eta goizetan berari laguntzen ibiltzen naiz. Arratsaldeak niretzat hartzen ditut, entrenatzeko.

Bizi liteke aizkolari moduan?
I.V.: Zaila da, baina, puntapuntan dauden horietako norbaitek agian horretarako aukera izango luke. Batxillergoa bukatuta ikasketak utzi egin ditut. Jarraitzekotan Iruñera joan beharra neukan, eta horrela entrenatzeko aukerarik ez nuen izango. Oraingoz, aizkoraren aldeko apustua egin dut, eta ongi doakit, aurrerago, emaitzen arabera ikusiko dut zer egin.

Exibizioak egiteko dei asko izaten al du Ikerrek?
I.V.: Egia esan oso dei gutxi jaso ditut azken urte hauetan. Txikitan kasik dei gehiago jasotzen nituen. Orain, Nafarroko txapeldun geratu ondoren badirudi dei gehixeago jasotzen hasi naizela berriro, ikusiko dugu ea nola datorren uda.

Joxe Manuel Agirre Eizagirre "Endañeta" (1943, Itziar, Deba). Harrijasotzailea

Harrijasotzaile bikaina izan zinen. Nolakoa izan zen hasiera?
Endañeta: Urtainengatik hasi nintzen ni harria jasotzen. Bi auzotakoak ginen, Urtain, Arroa aldekoa zen, eta ni berriz, Elorriagakoa, Zumaia aldekoa. Garai hartan bi auzoetan izugarrizko giroa zegoen eta lehia moduko bat ere bai. Urtainen aita harrijasotzailea izandakoa zen eta hark maisua etxean zuen, ni berriz zerotik hasitakoa nintzen, baina hala ere, bion arteko apustua hitzartu genuen. Sekula jokatu ez zen apustua, hain zuzen ere. Urtainek atzera egin zuen, eta apustua egindakoan aurreratutako dirua galdu egin zuen. Esan zutenez, eskuko behatz batean ebaki bat egin zuen. Handik gutxira, bera boxeatzen hasi zen eta bi auzoen arteko apustu giro hura orduantxe galdu zen.

Geroztik zenbat apustu?
E.: 23 apustu egin nituen nire kirol ibilbidean. Horietatik 14 irabazi, eta bat berdindu egin nuen, Mendizabalen aurka. Gainontzeko zortziak galdu egin nituen. Pisu handiko harriekin aritzen nintzen, eta apustua egingo banuen, normalean, aurkariari pisuan abantaila eman beharra izaten nuen, bestela ez zegoen apustua egiteko modurik.

Noiz utzi zenuen harri jasotzea?
E.: 40 urte nituenean, orain dela 33 urte juxtu.

Zu aritzen zinen garaitik ona zer nolako aldaketa izan du harrijasotzeak?
E.: Aldaketa handia izan da gu ibiltzen ginen garaitik hona. Entrenemenduak oso ezberdinak dira, orduan, apustu munduan erabat sartuta ibiltzen ginen. Orain, berriz, markak egitera joaten dira, beste erabateko giroa da oraingoa.

Eta nola ikusten dituzu gaur egungo harrijasotzaileak?
E.: Oso desberdinak dira. Gure entrenamendua mendian ibiltzea eta etxean teilatupetxo baten azpian harria jasotzea izaten zen. Orain, gimnasiora joaten dira eta prestakuntza askoz osatuagoa dute, medikuak ere badituzte, harriari plomoa sartzen diete bolumena gutxitzeko, guk harri-harria erabiltzen genuen. Beste mundu bat da.

Harrijasotzaileek gorputzari izugarrizko tratua ematen diozutela dirudi. Sasoiko ikusten zaitugu.
E.: Sasoiko nabil, ez daukat inongo atxakerik. Urte pila bat hartu dut bizkarrean, baina oraingoz benetan ondo sentitzen naiz.

Plazara joaten al zara?
E.: Bai, ahal dudan guztietan joaten naiz, izugarrizko afizioa daukat, baina, ez dut bata edo bestearen aldeko apusturik egiten, gezurra badirudi ere ez naiz batere apustuzalea.

URTEROKO BAZKARIA EULA SAGARDOTEGIAN

Aitzol Atutxa Gurtubai (1988, Dima). Aizkolaria

[LEHEN ORRIALDETIK DATOR]

Zergatik aizkora?
Aitzol Atutxa: Aitarengatik. Bere ere aizkolaria izan zen eta txikitan bera ikusiz zaletu nintzen. Badakizu, "zer ikusi, hura ikasi". Ez dakit noiz emango nintuen lehenengo aizkorakadak, gogoan dudana da jendaurreko erakustaldi batean lehenengo egur osoa zazpi urterekin moztu nuela.

Palmares itzela, eta urtetik urtera hobetuz doana...
A.A.: Orain arte bai. Iaz bederatzi txapelketa ofizialetan parte hartu nuen, eta horietatik zortzi irabazi nituen eta batean bigarren geratu nintzen, iaz bezalako urtea berdintzea zaila izango da.

Aizkolariak ia ez zaretela zahartu arte erretiratzen kontuan izanik, kirol bizitza luzea geratzen alzaizu?
A.A.: Erretiratu egiten dira, baina bai, kirol bizitza nahiko luzea izaten da gurea, batez ere, teknikak eta erresistentziak duen garrantziagatik. Erresistentziako kiroletan beti egoten da jende heldua. Eta teknika hain garrantzitsua izanda, bada oraindik gehiago.

Ogibidetzat ikusten al duzu?
A.A.: Ez. Enpresaritza ikasketak egin nituen, eta familiaren enpresan hasi nintzen lanean eta hor jarraitzen dut buru-belarri, hortik jaten baitugu. Gainera, ni ez naiz erakustaldi gehien egiten dutenetakoa.

Nola uztartzen dituzu, familia, lana, kirola?
A.A.: Ez da erraza dena uztartzea. Saiatzen naiz ahalik eta ondoen egiten, entrenatzeko tarteak ateratzen, ume biak txikitxoak dira oraindik, eta horiek ere lana ematen dute, buruko mina behintzat bai, hainbat pozekin batera, noski. Badago jendea ia erabat aizkora munduari eskainia, baina, ez da nire kasua.

Aizkolariei dagokionez, zein da egungo Bizkaiko errealitatea?
A.A.: Lehenengo txapeldun bizkaitarra naiz. Lehenengo mailan dagoen aizkolari bakarra naiz, gainontzekoak hirugarren mailan daude. Zonaldearen arabera asko aldatzen da egoera, adibidez, Arratiako bailaran beti egon da afizioa, batez ere, Zeanurin. Ez dakit zer izaten den lehenengo, arrautza ala oiloa. Afizioa ala lider bat? Orain txapelduna bertakoa izanda afizioa etorriko al da? Ez nuke jakingo erantzuten. Espero dut baietz, Bizkaia osora afizioa zabaltzea gustatuko litzaidake.

Olasagastirekin duzu apustua...
A.A.: Orain arte ez dut apusturik jokatu, hau izango zen aurrenekoa eta momentuz atzeratu egin genuen Olasagastik mina hartu zuelako. Apustuek kirol honi bere xarma ematen diote, eta probatu egin nahi nuen. Momentuz itxaron egin beharko dut, ea posible den urtea bukatu aurretik gauzatzeko modua izatea.

Laurence O'Toole (1980, Melbourne, Australia). Aizkolaria

Zenbat denborarako etorri zara Euskal Herrira?
Laurence O'Toole: Euskal Herrira etortzen naizen laugarren aldia da. Urtarrilaren 10ean iritsi nintzen bikotekako "Urrezko aizkora"n lehiatzeko, eta txapelketa hau bukatzean itzuliko naiz Australiara. Martxoaren hasiera aldera.

Nolaz zatoz Euskal Herrira?
L.O.: Australian orain da aizkolarientzat urteko garairik fuerteena, hainbat txapelketekin eta abar, baina oso gogoko dut hemengo giroa eta konpetizioa.

Kontuan izanik zure fisikoa (1,95ko altuera) agian beste kirolen bat egokiago izan ziteken zuretzat...
L.O.: Aitona, aita eta osaba bat ere aizkolariak izan ziren aurretik. Osaba batek aizkorak egiten ditu, giro horretan hazi nintzen. Aitak eta osabak parte hartu zuten duela aspaldiko Euskal Herria-Australia aizkora lehiaketa haietan. 5 urte nintuela Arria II. ikusi nuen Australian konpetitzen eta hura ikusteak sortu zidan inpresioa ahaztezina da niretzat.

Munduko txapelduna zara. Nolakoa da txapeketa hori?
L.O.: Txapelketa egur bakarrera izan zen, eta bai, txapelduna izan nintzen. Kanaerdi inguruko eukalipto egurreko egur bat ebaki behar izan genuen. Urtero egiten da Sidneyn munduko txapelketa hori eta nik irabazi nuen azkeneko urtekoa. Gu lan motzetara ohituta gaude, egurra ere oso ezberdina da, han eukaliptoa erabiltzen dugu, hemengo pagoaren egurraren aldean biguna eta garbia, adarbegirik gabea.

Nolakoak dira hango aizkorak?
L.O.: Aizkora ezberdina da, teknika ezberdina da. Neronek ekarri ditut handik aizkora batzuk, onak baina handiak. Hemengo lan luzeetan neke handia sortzen zait bukaerarako.

Hemengo lan luzeak diozu?
L.O.: Ez zait erraza egiten hemengo lehiara egokitzea, baina gogor entrenatzen ari naiz.

Australian zein da aizkora munduaren errealitatea?
L.O.: Hemengo modukoa da. Konpetizio ugari dago urte osoan zehar, eta tarteka gurekin izaten ditugu Estatu Batuak, Kanada eta Zeelanda Berriko aizkolariak ere. Mila aizkolari inguru gaude federatuta, asko dirudi, baina, kontuan eduki behar da herrialdearen tamaina izugarria. Telebistan presentziarik ez dauka.

Zer gustatzen zaizu Euskal Herritik?
L.O.: Oso ezberdina delako gogoko dut. Eta etortzen naizen bakoitzean egiten didaten harrera beroa. Hemengo aizkolariek beren etxeko ateak irekitzen dizkidate. Sagardotegiak ere asko gustatzen zaizkit.

Beraz, berriro itzuliko zara?
L.O.: Ez dakit itzuliko naizen, momentuan hemen nago eta hau bizitzera mugatzen naiz.

Noiz arte ikusten duzu zure burua aizkolari moduan?
L.O.: Ez naiz inoiz erretiratuko.

Idoia Etxeberria Ikutza (1992, Orio). Harrijasotzailea

Noiz hasi zinen harria jasotzen?
Idoia Etxeberria: 2007.urtean hasi nintzen, 14 urte nituela. Gure aita herri kiroletako talde batean ibiltzen zen, mundu hori ezaguna nuen eta Orioko beste neska bat harri jasotzen ikusita animatu egin nintzen. Nire auzoko festetan atera nintzen jendaurrera estrainekoz.

Nor izan duzu irakaslea?
I.E.: Jose Ignazio Lusarbe izan nuen lehen irakaslea. Gaur egun ere laguntza handia ematen dit. Duela urtebetetik Ostolazarekin hasi nintzen, aukera eman zidaten eta orain berariekin entrenatzen naiz.

Konta izaguzu zure ibilbidea...
I.E.: Labur esateko, 55 kilokoarekin hasi nintzen, eta 120 kilokoa bizkarreratu nuen 16 urterekin. Geroztik, txapelketak eta markak uztartzen joan gara. Nire marka onena iazko uztailekoa da, 157 kiloko harria jaso nuen orduan.

Zenbat eta karga astunagoa jasotzea da zure helburua?
I.E.: Badu bere garrantzia, jendeak ere hori eskatzen digu. Txapelketei garrantzia ematen zaio, baina markei handiagoa.

Zenbat neska ari zarete orain?
I.E.: Miren Urkiola eta Marijose Sardonek utzi egin zuten 2010. urtean. Orain, harria jasotzen Estitxu Almandoz eta biok bakarrik gabiltza.

Bi harrijasotzailerekin txapelketarik egin al daiteke?
I.E.: 2014an utzi ziguten birekin egiten, besterik ez zegoelako. Iaz Estitxu Almandozek ez zuen izena eman eta ez zen izan egiteko aukerarik.

Orduan, beste neska batzuen premia badu kirol honek?
I.E.: Dudarik gabe, lehiakortasunak beste bizipoz bat emango liguke. Jarraitzeko aukera badaukat, gogoa ere bai.

Erakustaldietarako eskaera handiagoa izaten al duzu neska izateagatik?
I.E.: Ez dakit mutilei zenbat plaza egiteko aukera ematen dieten, baina bai, uste dut gehien mugitzen denetakoa naizela momentu honetan. Ez daukat kexurik erakustaldi kopuruari dagokionez.

Kirolaz gain zer egiten du Idoiak?
I.E.: Ikasketekin jarraitzen dut. Batxilergoa egin ondoren, Donostian Haur Hezkuntzako goi mailako zikloa egin nuen. Hura bukatuta, hartan lanik egiteko aukerarik ez zen sortu, eta orain, "Natura eta baso kudeaketa" goi mailako bi urteko zikloa egiten ari naiz.

Santa eskean, ostegunean

Ostegun honetan Santa Ageda bezperako kantu errondaren tradizioa biziberrituko dute Urnietan. Urnietako Udalaren abeslari taldea herrian zehar etxez etxe eta kalez kale kantari ibiliko da arratsaldeko 17:00etik aurrera San Juan plazan. Ordubete lehenago entsegua egingo dute, Lekaion. Udalak parte hartzeko deia egin du.

Udal aurrekontuari buruzko aurkezpen ekitaldia

Datorren asteazkenean, otsailak 10, Urnietako Udalak aurrekontu proposamenari buruzko ekitaldi irekia antolatu du. Iluntzeko 19:00etatik hasita, partiden inguruko xehetasunak eskainiko dituzte. Aurrekontua dagoeneko pleno bidez onartu zuten.

Milaka euroko saria

Idiazabal kaleko dendan milaka euroko saria lortu zuen urnietar batek.

Urtarrilaren 30eko Bonolotoak sari potoloa utzi zuen Urnietan, ia 160.000 eurokoa. Idiazabal kaleko dendan zigilatu zuten. Asteroko boletoan hiru apustu egin zituela dio loterien erakundeak.

ENBAren batzar nagusia

ENBAren batzarra aurreko igandea Urnietako Salesiar ikastetxean.

Aurreko igandean Gipuzkoako ENBA nekazal sindikatuak bere Ohiko Batzarra egin zuen Urnietako Salesiarretan. Sektoreko hainbat datu eman ostean, Iñaki Goenaga lehendakariak "mendialdeko lurraldean barreiatuta dauden familia ustialekuen aldeko" politika egiteko deia luzatu zuen. Goenagaren esanetan, "familia baserriak indartzeko egiturak eta proiektuak sustatu eta bultzatu behar dira, baina ez lurraldean sakabanatuak dauden baserriak ordezkatzen saiatzen diren proiektuak, ekonomiaren ikuspuntutik oso lehiakorrak izan arren".

Batzarraren ostean, Baserritarron laguna saria Amama baserriko Asier Altunari eman zioten, bere lan ezberdinetan baserria eta baserritarren aldarria egiteagatik.

Bake eta bizikidetza jardunaldiak Urnietan, urtarrilean

Bizikidetzan sakontzeko memoriaren lanketa

Aintzane Ezenarro eta **Sabino Ormazabal**ek biktimen inguruko hitzaldi bana eskaini zuten Saroben, joan **den ostegunean. "Memoria landu: zergatik eta zertarako"** izenburupean, nork bere eskarmentua azaldu zuen. Ezenarrok azpimarratu nahi izan zuen berak zuzentzen duen Gogora institutuaren zereginik funtsezkoena, biktimen arloan, pentsamendu ezberdineko alderdi eta pertsonen arteko adostasuna ahalbidetzea dela. Horretarako, printzipio batzuk jarraitu nahi dituztela zehaztu zuen: "Memoria jasotzerakoan ezin da ezer utzi, baina ezin da dena nahastu. Ardurak ere ezin dira diluituta geratu. Gertaera bakoitzak bere azterketa espezifikoa eskatzen du".

Euskal gatazkak eragindako biktimak ardatz hartuta, hitzaldi bana eskaini zuten Saroben Gogora insitutuko Aintzane Ezenarrok eta Argituzeko Sabino Ormazabalek.

Gogora institutuak etorkizunean zein erronka dituen adierazi zuen: "batetik, urruneko memoria jorratu nahi da: gerra zibilean eta frankismoan burutu ziren giza eskuideen urraketa guztien informea edo sumarioa hain zuzen. Horretarako, beharrezkoa den metodologia ezarriko da, talde multidiziplinarra osatuz aditu ezberdinekin. Oso berandu gabiltza, baina oinarrizko txosten bat osatu nahi genuke". Datu bilketarekin zerikusia daukan arlo hori aberasteko, dokumentazio zentroa sortu nahi du institutuak, "bertan jasoko dira talde multidiziplinar horrek biltzen dituen datu guztiak, gehi herriz herri memoriaren arloan funtzionatzen duten taldeek aporta dezaketena".

Memoria hurbila da institutuak jorratu nahi duen bigarren arloa. Horretarako bitarteko izango den "Memoriaren Plaza" izeneko ekimena deskribatu zuen. "Ekimen ibiltaria izango da, herriz herri ibiliko da, herritarren testigantzak jasotzeko asmoz". Alde horretatik, biolentziaren inguruan bizipen pertsonalen bat kontatzeko daukan edonori luzatu zion gonbidapena, "denok daukagulako horretarako eskubidea".

ERRENTERIAKO ESPERIENTZIA

Argituz elkarteko kide den Sabino Ormazabalek Errenterian azken urteetan garatzen ari den egitasmoaren nondik norakoa azaldu zuen. "Galdera batek gidatzen du egitasmoa: nola kontatu herritarrei Errenterian azken hamarkadetan gertatu dena, giza eskubideen urraketei dagokionez. Jakina, gauza bat da txosten bat egitea gertakizun guztiak bilduz, baina bestea da hori dena nola kontatu".

Ekimenak hasieratik nagusi izan duen printzipioa ezinbestekoa izan dela eta izaten ari dela aitortu zuen: "sukalde lanarekin ahalegindu behar dago, pazientzia, bilera mordoa alderdietako kide ezberdinen artean...".

Horrez gain, herriko jende zehatzarengana jo zuten, Ormazabalek adierazi zuenez: "Herrian sentsibilitate ezberdina daukaten hamabi pertsona bildu genituen, memoria bat konpartitzeko helburuz. "Printzipioz, bagenekien norberak bere memoria gorde ohi duela, gertakizun batzuk besteak baino gertuago edo biziago eduki ohi ditugula oroimenean. Horregatik, denon artean Errenteriako gizarte bizitza markatu duten hamahiru hito edo gertakizun jasotzea adostu genuen".

> *"Galdera batek gidatzen du egitasmoa: nola kontatu herritarrei Errenterian azken hamarkadetan gertatu dena, giza eskubideen urraketei dagokionez"*
>
> *Sabino Ormazabal*

Era horretan, "Memoria partekatu baterantz" izeneko txostena osatu eta aurkeztu zuten 2015eko azaroan. Kronologikoki, nahiko mugatua da txostena. "1956an hasten da frankismoak eszepzio egoera ezarri zuenetik, eta 28 erasoaldi jasan dituen PSEren egoitza 2012an ireki zenean amaitzen da. Tarte horretan, hogeita zortzi heriotz zenbatu dira; inkontrolatuek, poliziak, ETAk eta Komando Autonomoek burutatukoak". Omarzabalek berak adierazi zuenez, arrazoi nagusi bat dago 1956ko urtea jartzeko abiapuntutzat: "orduantxe hasi zen langileen mugimenduaren borroka hazten eta, denok ados geunden zehazterakoan zuzenki lotuta zihozela langileen borroka hori eta demokraziaren aldeko borroka".

GIDA-BAIMENA EUSKARAZ

2015ean gidabaimenaren formakuntza egin eta azterketa teorikoa euskaraz atera zutenen artean, eskualdeko euskara lansailek 400 euroko 11 sari zozketatu dituzte. Ekimen honetan Andoaingo eta Urnietako Udalek eta bi herrietako hiru auto eskolek parte hartu dute: Andoaingo Bengoetxea eta Mendi autoeskolek eta Urnietako Solozabalek. 113 kideren artean eskualdeko irabazleak **Lorea Otero** eta **Eduardo Fraile** izan dira Andoainen, eta **Leire Erasun** Urnietan.

BURUNTZANTZAN TALDEKO KIDEAK URNIETAN EDERKI BIZI DELA DIO

Guille Piñeiro, Montevideotik Urnietara

Guillermo Piñeiro Guridi 1979ko apirilaren 17an jaio zen Montevideon, Uruguaiko hiriburuan. Bere aita, "Amerikak egitera" joandako Galizako familia bateko kidea, ama berriz, duela lau belaunaldi joandako familia euskaldun baten ondorengoa. Duela hiru urtetik Urnietan bizi da. Besteak beste, Buruntzantzan batukada taldeko kide eta hainbatetan zuzendari gisa egindako lanagatik ezagun da.

Montevideon jaio zinen, baina zure abizenek zure arbasoen jatorria salatzen dute...

Guille Piñeiro: Gure aita Pontevedratik "Amerikak egitera" Montevideora joan zen familia osoarekin batera 7 urte zituenean. Ama, berriz, uruguaitarra da, baina, bere birraitona Legazpikoa zen.

Nolakoa da Montevideo?

G.P.: Milioi eta erdi biztanleko hiriburu bizia da. Rio de la Platako badian kokatua, batez ere, eraikin baxuz osatutakoa, beraz, lur eremu oso handia da.

Eta Uruguai?

G.P.: Hiru milioi pasatxo biztanle ditu. Munduan zehar beste 400.000 uruguaiar bizi gara. Argentina eta Brasil artean kokatua, lurralde txikia da, Hegoamerikako bigarren txikiena da.

Nolakoa da uruguaiarren izaera?

G.P.: Argentinarrekin parekatzen gaituzte, baina, lasaiagoak gara, "itzaliagoak". Kultura mailan, tangoa adibidez, oso Montevideokoa da, Buenos Airesekoa adina esango nuke. Estatu Batuen eragina ere nabarmena da musikari dagokienez, baina baita ere afrikar erritmoena. Amerikan izandako afrikar esklabuek eramandako erritmoak erabat txertatuta daude Uruguaiko kulturan. Uruguai izan zen esklabutza abolitu zuen lehen herrialdea.

Noiz irten zinen Uruguaitik?

G.P.: 2002. urtean, 23 urte nintuela, ordurako ezkonduta nintzen eta emaztea eta biok Galizara, Vilagarcia de Arousara etorri ginen. Aurretik gure aita bertara itzuli zen, Hegoamerikak bizi zuen krisi ekonomiko larria zela eta. Han sei hilabete egin nituen, eta ondoren Vigon urte eta erdi.

Euskal Herrira etortzean Andoainen igaro zituen bi urte.

Eta Euskal Herrira etorri zinen...

G.P.: Bai, Euskal Herrira etortzea erabaki nuen bizitza hobe baten bila. Aurrez izana nintzen Donostia bisitatzen eta gutxi gora-behera banekien nora nentorren. Lehenik Andoainera etorri nintzen, bertan bi urtez bizituz. Banituen ahaideak eta iritsi berritan asko lagundu zidaten. Ondoren, Donostian, Hendaian bizi izana nintzen, duela hiru urte Urnietara iritsi nintzen arte.

Nola sentitzen zara Urnietan?

G.P.: Nire etorrerak Buruntzantzan batukada taldearen sorrerarekin bat egin zuen, eta horrek ate asko ireki zizkidan. Jende jatorra ezagutzeko aukera paregabea eman zidan, oso eroso sentitu izan naiz hasieratik, eta ez dut joateko asmorik. Joatekotan ere, ez nintzateke Donostiara baino urrutiago joango.

Noiztik duzu musikarako zaletasuna?

G.P.: Ume nintzela ikasi nuen solfeoa eta teklatua Montevideon. Behin Euskal Herrian, Donostiako Taupada batukada taldea ezagutu nuen eta han hasi nintzen duela zazpi urte. Eta geroztik hor nabil. Ez da nire ogibidea, soilik afizioa, baina, nire bizitzaren zati garrantzitsu dira batukada eta musika orokorrean.

Zutik, eskuin aldetik hirugarrena Guille Piñeiro da.

Nola ikusten duzu gaur egun Buruntzantzan taldea?

G.P.: Osasuntsu dago, etengabeko hazkuntza batean murgilduta. Joaten den lekuetara alaitasuna barreiatuz. Tamaina honetako talde guztietan bezala, batzuk joaten dira, eta berriak etortzen dira. Hori ere mesedegarria da, etorri berrien energia hori beharrezkoa baita.

Behin Euskal Herrian, zerk harritu zintuen?

G.P.: Paisai berdeak, mendiek... etorri berritan errepidetik kotxez nindoala ikusten nuena zoragarria iruditu zitzaidan. Kanpotik, hemengo albisteak entzuten nituenean ez nuen ideiarik ere egiten zer den hemen bizitzea, hemengo jendea ezagutzea. Orain, lagun minak ditut, bere etxeko eta bihotzeko ateak ireki dizkidaten lagunak. Erabat integratuta sentitzen naiz. Kanpotik datorrenak ere bertan integratzeko bere aldetik ere jarri behar du.

Uruguaik merezi al du bisita bat?

G.P.: Bai horixe! Orokorrean hartuta aukera oso ezberdinak eskaintzen dituen herrialdea da. Turismoarentzat oso prestatuta dauden hondartzetatik (adibidez, Punta del Este) hasi eta inguru oso naturala mantentzen duten hondartzetaraino (adibidez, Cabo Polonio). Montevideotik ekialdera mota guztietako 600 kilometro hondartza daude. Hori bai, herrialde garestia da. Batez ere, bertako soldatak kontuan hartuta.

> *"Lagun minak ditut Urnietan, bere etxeko eta bihotzeko ateak ireki dizkidaten lagunak. Erabat integratuta sentitzen naiz"*

Bertako gastronomiaz zer esango zeniguke?

G.P.: Haragi errea "produktu izarra" da. Modu ezberdinetan prestatutako pastak eta arrozak ere oso tipikoak dira. Edariren bat aipatzekotan, Grapa nabarmenduko nuke. Orujo baten modukoa da, belar ezberdinak erabiliz zapore ezberdinetan prestatzen dena.

"Uruguaiko etxerik" ez dut ezagutzen...

G.P.: Galizan ezagutu nuen bat, Vigon. Bertan, harrera egiten zien etorri berriei, matea edaten genuen bertan. Hemen, batukadaren bidez talde bat ezagutzen dut, baina, ez dut ezagutzen Uruguaiko etxerik, agian, iritsi da sortzeko ordua. Zergatik ez Urnietan?

Nola adieraziko zenioke uruguaiar bati zer den sagardotegi bat txotx garaian...

G.P.: Galizan bizi den anaiari azaltzen saiatu nintzen. Oso zaila da azaltzea, onena bertara eramatea da. Hemengo nortasunaren parte dela esango nuke, berezia. Lehenengo aldiz joan nintzenean umetxo bat zapata berriekin bezala ibili nintzen, dena zen hain estimulagarria!

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA

AURREKO ASTEBURUAN KALEJIRA HERRIAN BARRENA

Kaldereroen bilkura jendetsua

Ontza elkateak eta Ondarreta ikastetxeak bereziki Kaldereroen tradizioa biziberritzeko lanak hartu zituzten. Eta lan horiek fruituak eman ohi dituzte. Antolatuko zen edo ez, zalantzak baziren. Azken egunetan, ordea, ospakizunak aurrera egiteko beharrezko lan guztiak hartuta, kalejira koloretsua osatu zuten adin guztietako andoaindarrekin.

Musikarien erritmora Ontza elkartetik abiatu, Goikoplazan kanpalekua ipini eta kalejira egin zuten ondoren.

Jexux Ibañez musikariak idatzi du kaldereroen konpartsaren esker oneko gutuna.

Kalejira Kale Nagusira hurbildu ahala kide berriak batu ziren konpartsara.

Banaka eta taldeka askotxo izan dira aurten parte hartzera animatu direnak.

Kaldereroen buruzagia eta hartza, Goikoplazan behera.

Adin guztietako festazaleen topagune bilakatu da kalderero festa.

Mila esker Andoain!

Jexux Ibañez Igarategi

Larunbat honetan, berriro ere martxan jarri genuen kaldereroetako konpartsa. Joan den urteko esperientzia kontuan harturik, nahikoa kezkaturik ginen gure ahaleginak izango zuen eraginarekin.

Jendea erakartzeko hainbat ekintza eraman ditugu aurrera, Ondarreta ikastetxearen kalderero konpartsan parte hartuz adibidez... Esperientzia oso polita izan da eta ondorengo urteetan horrelako bideak jorratu behar ditugula erakutsi digu.

Eragile ugariren laguntza izan dugu kalean kartelak jarriz, ikasleak animatuz, bertsoak eskainiz, lagunarteak animatuz... Eta lortu dugulakoan gaude, berpiztu egin dugu konpartsa hori. Ikustekoa zen zein jendetza hurbildu zitzaigun Kale Nagusian zehar ibili ginenean.

Eragileak gara eta kultura gustuko dugu, baita ekintzak antolatzea eta herriaren erantzun polita jasotzea ere. Beraz, datorren urtean, dena ondo badoakigu, berriro ere ekingo diogu Inauteriak iragartzen dituen konpartsa kaleratzeari. Andoain herri bizia da eta kultur taldeok esateko asko dugu. Gora Andoaingo kaldereroak!

Ia hogeita hamar milioi euroko aurrekontua

Aurrekontu berriak plenoan onartu zituzten

Udal ordezkari guztiak aurreko osteguneko plenoan, Olga Hernandez ezik. Bajan dagoelako ez zen bertaratu.

Andoain ezusteko politikoen herria izan da azken hilabeteotan, baina Udal aurrekontua onartzeko plenoan aurreikusitakoa bete zen. Ez zen ezusterik izan, beraz, eta 2016ko Udal aurrekontu proposamena gehiengo zabal batekin onartu zen. Iragarrita zegoen bezala, EH Bildu, EAJ-PNV, Ganemos eta Irabazi alde agertu ziren. PSE-EE izan zen aurkako botoa eman zuen alderdi bakarra. Gauzak horrela, aurtengo aurrekontuak 12 aldeko botorekin eta aurkako 5 botorekin onartu dira.

PSE-EE aurka agertu zen alderdi bakarra izanik, zer esango zuten entzuteko jakinmina zegoen. Plenoan izan zuen lehen parte hartzean urtarrilaren 22ko prentsaurrekoan agertu zituen argudio berberak errepikatu zituen. **Maider Lainez** ez dago aurreko agintaldiaren "frakasoa" babesteko prest. Bilduk agintzen jarraitzen duela, eta iraganeko jokabidearengatik zigortu behar zaiela iradoki zuten sozialistek. Aurrekontu berrietan bosgarren edukiontzia zehatz-mehatz agertzea eskatu zuten, eta laguntza sozialen atalean presoen senideei laguntza ematearen erabateko desadostasuna agertu zuten.

Gainerako alderdiek ere euren argudioen defentsa egin zuten. **Ana Carrere** alkatea izan zen gobernu taldearen izenean hitz egiten lehena. 26.953.393 euroko aurrekontuaren aurkezpenera pozik agertu zirela aitortu zuen, "hasierako proposamenetik aldaketak izan ditu baina horixe du negoziaketak: ezberdinen artean elkartu eta kasu honetan bezala, herriaren alde onena bilatzea. Prozesu honek erakutsi du elkarrizketarako gogoa eta jarrera baikorra dagoenean, Andoaingo arazo eta behar nagusienei irtenbidea emateko gaitasuna badagoela". Akordioaren jarraipenerako markoa sortuko dutela iragarri zuen, egon daitezkeen ezustekoen aurrean soluzio bateratuak emateko.

> *"Elkarrizketarako gogoa eta jarrera baikorra dagoenean, arazo eta behar nagusienei irtenbidea emateko gaitasuna dago"*
> *Ana Carrere*
> *EH Bildu*

> *"Andoaindarren arazoei konponbidea ematea eta herriko erronka nagusiak soluzionatzea da lehentasuna"*
> *Marijose Izagirre*
> *EAJ-PNV*

EAJ-PNVko **Marijose Izagirre**k lehentasuna argia dela adierazi zuen: "Andoaindarren arazoei konponbidea ematea eta herriko erronka nagusiak soluzionatzea da lehentasuna. Ezinbestekoa da Andoainen alde lan egiteko herria maitatzea, herritarrak errespetatu, entzun eta beraien errealitatea ezagutzea".

Ganemoseko **Olga Hernandez** gaixotasun bajan dagoela eta, bere aldeko botoa Irabaziko Jorge Mourinhoren esku delegatu zuen. Idatziz bidalitako adierazkena irakurri zuen azken honek, Hernandezen izenean: "Gure helburua denen ongizatearen alde lan egitea da, eta aurrekontu proposamenaren erabat ados ez bagaude ere, aldeko botoa emango dugu guk egindako ekarpena kontutan hartu dutelako. Hain zuzen, etxegabetze arriskuan diren pertsonei babes juridikoa bermatzeko proposamena izan da guk mahai-gainean jarri duguna".

Irabazi alderdiko **Jorge Mourinho**k gobernagarritasuna errazteko jokabidea erakutsi zuen, "aurrekontuak blokeatuta zeudela ikusita, zoriontzekoa da adostasuna bilatzea. Horregatik eta proposamenean kontraesanik aurkitzen ez dugulako, baiezkoaren alde egingo dugu".

LAINEZ-ZULUETA IKA MIKA

Argudioen lehen txanda amaituta eta bozketari ekin aurretik Eh Bilduko bozeramaile Jon Zuluetaren eta PSE-EEko Maider Lainezen artean eztabaida politikoa piztu zen. Lainezek gobernu taldeari Udal aurrekontuak orain aurkeztu izana onartu zien, baina hurrengoetarako ahal dela abendurako aurkezteko gonbitea luzatu zien. Zuluetak erantzun zien PSE-EE gobernuan izan zen urteetan ez zuela sekula otsaila baino lehen aurkeztu.

Ondoren, Zuluetak sozialisten jokabidea auzitan jarri zuen. Negoziatzeko aitzakiak besterik ez zituztelako topatu. Sozialistek duten egun osoko liberazioarekin eta alderdiak duen ibilbidearekin, aurrekontua negoziatzeko beste jokabide bat espero zuela aurpegiratu zion Zuluetak.

Podemos Ahal Dugu alderdiaren aurkezpena

Iturria batzarkidea, Alba kongresukidea, Santano Andoaingo alderdikidea eta Guirado Hernanin zinegotzi den andoaindarra Urigain etxearen atarian.

Podemos alderdiak Euskadiko hedabideetako informatiboetako kazetariak Andoainera deitu zituen aurreko larunbatean, herriko taldearen aurkezpen ekitaldiari ekin aurretik. Hori dela eta, Urigain jauregiaren atarian bildu ziren Eitb, RTVE eta beste medio gehiagok Nagua Albari egun horretan bertan Madrilen burutzen ari zen sozialisten kongresuari edota Ciudadanos alderdiari buruzko galderak egin zizkioten. Aktualitate politikoari errepasoa eman aurretik honakoa adierazi zuen, euskaraz: "Andoaingo zirkuluaren sorrerara etorri gara, eta pozgarria da beti zirkulu berriak sortzea. Herritarrak eztabaidatzeko eta elkartzeko espazio bat izango da, gainera hemen bereziki garrantzitsua da guretzat lehen indarra izan ginelako abenduaren 20ko Hauteskunde Orokorretan. Eguberrien atarian, kanpaina egunetan, herritar batzuk lanean aritu ziren, baina gaurkoa irekiera ekitaldi ofiziala da".

Areto nagusira igo aurretik zehaztu zutenez, egoitza eta biltzeko egun zehatzik ez dute oraingoz. Taldearen martxaren arabera joango dira herriko taldea antolatzen. Areto nagusian Tolosako, Hernaniko edota Lasarteko zirkuluetako kideak hurbildu ziren eta baita Batzar Nagusietako ordezkariak ere. Aretoa jendez bete zen, eta tartean noski andoaindarrak zeuden.

Tere Santanak hitz egin zuen Andoaingo Podemos Ahal Dugu taldearen izenean. Politika mailan zegoen korrupzioari aurre egiteko eta beharra dutenen artean elkar laguntzeko asmoari helduz, alderdia martxan jartze erabaki zuela aitortu zuen. Gazteek hori egiteko zain egon zela adierazi zuen, baina hori gertatu ezean aurrera egiteko asmoa agertu zuen. **David Guirado** andoaindarra Hernanin bizi da eta bertako Podemos alderdiko kide eta zinegotzia da. Andoainen alderdia abiatzeko deialdia egin zuen, eta baita laguntza eskaini ere. Aurkezpen ekitaldiaren bideoan bilduta daude adierazpen gehiago, aiurri.com gunean.

Alba, Santana eta Guirado aurkezpen ekitaldiaren hasieran.

XABIER LASA • ANDOAIN

Ansatarren jokabidea

Aurreko asteetan "Heriotzaren triangelua" izeneko dokumentala eta estatu terrorismoaren inguruko hitzaldia ikus-entzuteko aukera izan dugu Basteron; Ansa abizeneko bi familiako kideei eginiko elkarrizketa bana ere argitaratu du Aiurrik. Herri honetan bizi izan dugun indarkeriaren historiaren barruan, kapitulu jakin baten inguruko oroimena freskatu egin digute guztiek ere.

Dokumentalak, 70eko eta 80ko hamarkadetan Andoainen hasi eta Astigarraga bitartean gertatu ziren giza eskubideen aurkako gertakari larriak (erailketak, ondasunen erretzeak, mehatxuak...) gogorarazi dizkigu lehendik ere zerbait bagenekienoi, eta lehen aldiz jakinarazi dizkie ezer ere ez zekitenei. Parentesia irekitzen dut: zer pentsatua eta zer kezkatua eman beharko liguke 30 urtetik beherako gazteek erakutsi duten interes eskasa; zer ari ote gara gaizki egiten belaunaldien arteko transmisioan?

Dokumentalak, elkarrizketek eta hitzaldiak Andoaingo eta andoaindarren memoria kolektiboan gorde beharreko gertakariak gerturatzeaz gain, perspektiba historikotik aitortu beharreko bi errealitate jarri dizkigute agerian. Honatx lehenbiziko errealitatea: indar parapolizialen edo inkontrolatuen fenomenoa, estatu terrorismoaren kapitulu ezkutatu baten ondorio izan zena, eta ekintza anekdotikotik eta bizpahiru ardi beltzen kontutik harago doana. Sigla ezberdinekin (izan BVE, izan Triple A, izan GAL...). Estatuaren aparatuek –Gobernuan alderdi bat izan, ala bestea izan–, sufrimendua eragiteko jorratu zuten praktika izan zen

Aparatu politikoak praktika hori sustatu, edo eta beste aldera begiratu zuen. Errealitate horren adibide ilustragarria, 1979ko abenduko gertakari batek ematen digu: Andoaingo Udalak eta herri ekimenak, biek batera herriko kuarteleko guardia zibilen eta ultraeskuindarren arteko konexioak, susmagarrien historialak eta bestelako frogak biltzen zituen txostena atondu zuten. Besteak beste, hurrengo hilabete eta urteetan hilketen egile izango ziren Iturbide herritarra eta Zabala aipatuz. Gobernadore zibilaren esku utzi zuten txostena. Hala ere, aipatu bi elementu horiek bigarrenaren amaren etxean jarraitu zuten bizitzen, eta bere Seat 127 autoarekin ibili ziren herriz herri paseatzen, kalez kale, baita txikitoak hartzen Astigarragan zein Hernanin. Zertarako hartu segurtasun neurririk, inpunitatea sentitzen duenak?

Udalak urtarrilean eskaini zuen "Heriotzaren Triangelua" ikus-entzunezkoaren ataria, Oroituz taldeak garai hartako informazioarekin osaturiko panelak ipini zituen.

Aparatu judiziala ez zen gutxiago izan konplizitateen sarean; esate baterako, Sanchez Medrano ultraeskuindar damutuak idatzi zuen txostenarekin erakutsi ahal izan zuen kausarekiko bere erantzukizuna: Auzitegi Nazionalak bizpahiru egunetan artxibatu zuen, nahiz eta ezin mamitsuagoa izan Iturbide eta beste makina bat izen abizenak eta horien ibilerak kontatzen zituen txostena. Frankismoan Tribunal de Orden Publikoan "lan" egin zuten epaileek bere horretan jarraitzen zuten euren bulegoetan, iraganean bezala justizia banatzen.

Eta noski, joko perbertso horretan, nahitaezkoa izan zen aparatu militar eta poliziala, "por la patria"ren alde lanik zikinenak egiteko prest.

Era guztietako bitartekoek balio zezaketen Francoren ostean laineztuta omen zebilen "separatismoari" aurre egiteko; indarkeria zerabilten separatistei botika berbera irentsarazi behar zitzaien, edo besterik gabe, pertsona anonimoak "sakrifikatu" behar ziren (ansatarrak, kasurako), beldurra zabaltzeko bazterretan eta "edozein izan liteke biktima" eta "hobe duzu politikan ez sartzea" mezuak gizartean transmititzeko.

BI FAMILIEN JARRERA

Gure historia hurbilaren kronika (kronologikoa eta emozionala) egiteaz gain, aurreko asteetako ekitaldi sortak agerian utzi du 35 urte hauetan bi biktimen senideek, Upategi baserriko ansatarrek eta Antzizu baserriko ansatarrek, erakutsi duten jarrera.

Isiltasuna, apaltasuna, diskrezioa... Nik ez dakit biolentziaren biktima batek eduki beharreko jarrera eredugarria zein den zein ez. Baina horiena, ondo azpimarratzekoa behintzat, izatez bada.

Luzea da benetan egin zitzaketen baina egin ez dituzten ekintzen zerrenda. Urte horietan, pankarta estu-estu heldu, eta exijitu zezaketen hiltzaileek kartzela zigor guztia bete zezaten, kartzelan "usteldu" zitezen. Exijitu zezaketen estatu terrorismoa (sigla askoren estalpean) antolatu, finantzatu, onartu, inpunitatez ezkutatu izan duten gobernuetako alderdi politikoak legez kanpo utz zitzaten.

Espainiaren batasuna ukiezina defendatzen duten alderdiei exijitu ziezaieketen uko egiteko aldarri horri, euren senideen hiltzaileek ere kausa berberaren izenean egiten baitzituzten egiten zituztenak.

Komunikabideen arreta eta titularrak eskatu zitzaketen, berdez jantzitako funtzionario publikoen umilazioa eta mehatxuak jasan behar izan zituztelako kontroletan, edo eta bi aldiz puskatu zietelako (Upategiko ansatarrei) senide erailaren alde bide bazterrean eta euren kabuz jarri zuten oroitarria.

Zintzilika zezaketen buzoi bat plazan, eta estatu terrorismoaren garaietan Madrilen agintzen zuten alderdi horien boto emaileei gutun bidez zera eskatu: aitortu zezatela zenbaiteraino sentitzen diren errudun, konplize...

Herriko agintariei eskatu ziezaieketen herriko parke bati beren etxeetan falta dute haien izena jartzea, edo haren omenezko eskultura zutitzea Goikoplazan, edo herriko domina eskaintzea.

Joxe Ramon Ansaren heriotzaren biharamunean, 1979ko maiatzeko udalbatzan, egia eta justizia ezartzeko eta demokrazian bizi garela benetan sinesteko estatu aparatu frankisten depurazioa premiazkotzat jo zuten alderdi eta politikoei galdetu ziezaieketen ea zertan geratu diren eskaera haiek eta ea hurrengo hamarkadetan koherentziaz jokatu izan duten.

Eta ansatarrek segi zezaketen hau eta bestea eskatzen, eta egiten... Baina ez dute bide horretatik jo, kontrakotik baizik.

Instantzia politiko askotatik biktima batzuen eta besteen artean parekotasunik ez dela ezarri behar adierazten zaigunean, zer esan nahi ote da, gure Andoainen azken 35 urtetan biktima batzuei eta besteei eman zaien tratamendu ofiziala, arras diferentziatua, horixe dela eredugarria? Hori dela jarraitu beharreko bidea?

Aitor dezagun, Andoainen, Euskal Herrian herri gutxietan bezainbat esango nuke, desproportzioa bizi izan dugula kontu honetan, formatan zein mamian.

Konplexua eta sentiberatasunez hartu beharreko gaia da inondik ere, biktimena, zer nola jokatu behar duten, zer nola adierazi behar duten edo dezaketen euren sentimenduak, zein funtzio bete behar duten gizartean... Zailak jorratzen, inor mindu gabe. Baina printzipio batek agindu behar duela, ez dago zalantzarik: senideren bat bortxaz galdu duten herritar guztiek merezi dutela egia, justizia eta ordainketarako eskubidea. Denek daukatela merezia babes juridikoa, ekonomikoa, sikologikoa, politikoa, animikoa... eta batik bat, herritarren babesa, gertutasuna. Guzti-guztiek, ez batzuek gehiago besteek baino.

ANDOAINEN EGITEKOAK

Andoainen ez dugu urrats handiegirik eman zor hori kitatzeko, aurreratuago dabiltza beste zenbait herritan eginkizun horretan. Kontziente izan behar dugu atzera begiratzeko garaia badela, etorkizunean kolektibo bezala zein pauso eman jakiteko. Baina atzera begiratze hori, giza eskubideen urraketa guztiak aintzat hartzekotan beharko du izan. Erailketak, mehatxuak, ikertu gabeko heriotzak, torturak, ondasunen aurkako sabotaiak, gero absolbitutako kartzeleratzeak...

Instantzia politiko askotatik biktima batzuen eta besteen artean parekotasunik ez dela ezarri behar adierazten zaigunean, zer esan nahi ote da, gure Andoainen azken 35 urtetan biktima batzuei eta besteei eman zaien tratamendu ofiziala, arras diferentziatua, horixe dela eredugarria? Hori dela jarraitu beharreko bidea?

Neronek ezin argiago daukadan gauza bakarra da egin behar ez dena, badauzkagu adibideak eta: frankismoaren biktimekin egon den eta dagoen utzikeria.

Azken aldian besteei autokritika eskatzen espezializatu diren etika lezio emaile gutxiago behar ditugu, eta ariketa gehiago barrura begirakoak. Ariketa horretan, zintzoak izan nahi badugu, aitortu beharko dugu, hipokresirako joera tentagarria alde batera utzita, denok, politikoek zein herritarrok ez dugula biktima guztiekin berdin jokatu. Geure ideologiaren betaurrekoetatik ikusi dugula errealitatea; herrian gertatutako giza eskubideen bortxakeri bakoitzaren aurrean, sentimendu edo jokaera ezberdinak sentitu-erakutsi izan ditugula, eta egite horretan funtsezkoak izan direla geure ideologia, eta, biktimaren eta biktimarioaren ideologiak edo horiekiko eduki genezakeen gertutasun pertsonala, sinpatia... Haserretu, isildu, kalera irten eta manifestatu, etxean geratu, bestaldera begiratu, amorruz bete, gaitzezpen hitzak adierazi edo mozioak aurkeztu, testuinguru politikoaren edo legearen inperioaren edo bertsio ofizialaren aterpean babestu...

Giza eskubideen urraketak faktore askoren arabera epaitu ditugu, objetibitate gutxirekin.

Hortik abiatzen bagara, aurrera egin genezake iraganekiko eta biktimekiko dauzkagun zorrak kitatzeko orduan, eta etorkizuneko bizikidetzan oinarriak jartzen hasi.

KIROL ALBISTEAK

Urrezko lau domina Espainiako txapelketetan

Aurreko asteburuan Gijonen Espainiako txapelketak jokatu ziren eta Mikel Esnal andoaindarrak urrezko lau domina jaso zituen, 20-24 urtekoen mailan. Forma betean aritu da. Etengabe hobetzen ari da, jada adinak ematen dion heldutasuna ederki baliatuz. Berak ondoen egiten dituen probez gain (50 eta 100 librea), Gijonen 50 tximeletan eta 50 bizkar proban ere zer esan handia izan dezakeela garbi utzi zuen. Buruntzaldea IKT taldeko arduradunek Esnalen lan programaren barruan sartuko dute.

Lau urrezkoak:

- 50 tximeleta 25:68
- 50 librea 23:57

Mikel Esnal igerilaria.

- 50 bizkar 27:14
- 100 librea 52:53

Bereziki azken biak nabarmendu dituzte, "larunbateko saioan, 50 bizkar proban, sekulako denbora egin zuen marka pertsonal berria lortuz. Igandeko 100 librean bere onenetik 24 ehunekotara geratu zen".

Esnal etengabe hobetzen ari da, jada adinak ematen dion heldutasuna ederki baliatuz

Haitz Mitxelena lasartearrak ere emaitza bikainak lortu ditu txapelketa berdinean. Aurrera begira, bi igerilariak Iñigo Ibarburu eta Itsaso Tolosarekin batera lanean jarraituko dute, Euskal Herriko Neguko Txapelketari eta Espainiako Udaberriko Openari begira.

Euskadiko kros txapelketa

Aurreko igandean Zubietako hipodromoan Euskadiko kros txapelketa jokatu zen. Juniorrek 6.922 metro egin behar izan zituzten, eta seniorrek 10.142.

Sailkapena:

Seniorrak, Zumeatarra:

36. Hassan Aitchaou	34:45
74. Jon Iturralde	36:23
145. Asier Garitaonandia	40:48

Juniorrak, Zumeatarra:

34. Oier Eskudero	29:51

Zumeatarrako kideak, ezker eskuin: Oier, Asier, Hassan eta Jon.

Euskal Ligan arituko dira

Leizaran eskubaloi taldeak, datorren astean hasita, Basauri, Eibar edota Usurbil taldeen aurka arituko dira. Klubak taldea zoriondu du: "disfrutatu merezimendu osoz irabazitako txapelketa honetaz". Modu berean, aurreko asteburuan Zumaiara joandakoen zaletuen babesa eskertu dute. Asteburua luzea eta intentsitate handikoa izan da. Ostiralean hasi ziren norgehiagokak. Andoaindarrek Bilboko Escolapios 34-26 garaitu zuten defentsa eta erasoaren arteko oreka bikain baliatuz. Bigarren norgehiagoka larunbat arratsaldean jokatu zuten, etxekoen aurka. Pulpo Zumaiaren aurka, alegia. Partida gogorra izan zen, Pulpo Euskal Ligan aritzen baita. Andoaindarrak baxu aritu ziren, eta 28-19 galdu zuten. Fase honetako azken partida, igande goizean jokatu zen. Helburua lortzeko, andoaindarrek Gasteizko Corazonistas taldeakoak garaitu behar zituzten. Partida bikaina jokatu ez bazuten ere, 29-21 gailendu ziren.

Asteburuko partidekin sailkapena honela geratu da: Zumaiako Pulpo, Andoaingo Leizaran Eskubaloia, Gasteizko Corazonistas eta Bilboko Escolapios. Lehen biek, Euskal Ligan jokatuko dute bigarren fasea, datorren astetik aurrera. Zorionak!

Urnietako kiroldegiaren ordutegia zabaldu dute

Kiroldegia goizeko 08:30etan ireki eta gaueko 22:00ak arte zabalik izango da. Eguerdian ere zabalik.

Ikastaroak

Izena emateko epea itxi bazuten ere, ikastaro batzuetan tokia badago hala nahi duenarentzat spinning, tonifikazioa, zumba eta aerobic jardueretan. Izena eman nahi duenak kiroldegira jo beharko du datorren otsailaren 12a baino lehen. Prezioa, 108 eta 110 euro artekoa.

Saskiko seniorrak, lautik lau garaipen igoera fasean

Ganbara SenM 58-46 BKL

Indar handiz ekin dio igoera faseari, lautik lau garaipen eskuratuz.

Sailkapena:

1. Ganbara	4 4
2. Añorga	4 3
3. BKL	4 2

Easo 45-61 Ganbara JubM

Lehen partida galdu bazuten ere, lau garaipen lortu dituzte jarraian.

Ganbara InfM 52-48 Axular

Igoera faseko hirugarren partidan iritsi da garaipena.

Futbola, asteburuko partidak

ERREGIONAL OHOREZKOA

20. jardunaldia:

Euskalduna 1-0 Hondarribia

Sailkapena:

1. Tolosa	44 puntu
2. Anaitasun	39 puntu
3. Mutriku	36 puntu
11. Euskalduna	28 puntu

21. jardunaldia, otsailak 7:

Touring-Euskalduna

PREFERENTE MUTILAK

18. jardunaldia:

Urnieta 2-1 Deusto Donostia

Sailkapena:

1. Añorga	42 puntu
2. Sanpedrotarra	42 puntu
3. Trintxerpe	38 puntu
5. Urnieta	33 puntu

19. jardunaldia, otsailak 14:

EAS08-Urnieta

"Emakumea korrikalaria" izena emateko aukera

35 urtetik gorako emakumeen artean kirola sustatzeko ekimena, Udalaren eskutik. Otsailaren 11n hasiko da, taldean korrika aritzeko "astean behin edo bitan kirola modu osasungarri eta dibertigarrian". Izena emateko epea zabalik dago otsailaren 5era arte, Allurraldeko bulegoko ordutegian. Astelehenetik ostiralera 09:30etik 13:00etara eta asteartean eta ostegunean 17:30etik 19:30era.

Izaskun Jauregi kiroldegiko langilea izango da ekimenaren sustatzailea eta hark adierazi bezala, "gradualki abiatuko ginateke. Hasieran oinez, korrika minutu pare batez edo, pixkanaka denbora tarte horiek areagotuz".

Urnietako pilota emaitzak

Pala motza, Euskal Liga:

Oiangu 31-40 Urnieta
Aitor Aldunberri-Xabier Garagorri

Trinketea, Gipuzkoa:

Urnieta kadeteak 40-34 Oiarpe
Iker Elgarresta-Aitor Aldunberri
Urnieta senior 40-28 Bear Zana
Julen Loitegi-Eñaut Esnaola

Gomazko paleta, seniorrak:

Altzatarra 25-15 Urnieta
Jon Iturbe-Unai Arozena
Zarautz 25-19 Urnieta
Jon Iruretagoiena-Xabier Arenaza
Urnieta 13-25 Usurbil
Iban Barrutia-Xabier Pavon

ELKARRIZKETA

Iker Hernandez, Barakaldoko futbol jokalaria

Barakaldon, Lasesarre futbol zelaia hiri handi haren burrunbatik aparte dago. Inguruan A-8 autopista dago, eta trafiko handia bertan, baina apenas entzuten da soinurik.

Iker Hernandez urnietarraren jarrera eta hitzetan bezala. Patxada transmititzen du mutilak. Pozik bizi da, espazioa bilatu du, burua arindu.

Pozik bizi da, espazioa bilatu du, burua arindu. Aro berri baten hasiera izan liteke, baina nahiago du egunean egunekoa bizi: "nire bizitzako azken urteak planifikatuta egon dira, ia egunero gauza berak egiten. Orain ez, eta gozatu beharra dago".

Barakaldon zaude, eta ez Urnietan. Esango nuke apur bat isilean, oihartzun mediatiko handirik sortu gabe joan zinela herritik...

Baliteke. Bizitza ia guztia egin dut Urnieta eta Zubieta artean, baina azken hilabeteetan apenas itzuli naiz Urnietara, gurasoen etxera. Zubietara ere ez, noski. Bizitzak aro ezberdinak ditu, eta orain Barakaldon nago.

Zergatik Barakaldo?

Aldaketa bat nahi nuen. Behar nuen, esango nuke. Oraindik, ekainera arte, Realeko jokalaria naiz kontratuz. Utzita joan nahi nuen norabait, eta hainbat aukera egon ziren mahai gainean. Barakaldoko entrenatzailearekin hitz egin nuen, hemen zeuden hainbat jokalarirekin, Realari nire asmoa zein zen jakinarazi, eta pausoa eman nuen.

Lasesarre futbol zelaian, aurreko astean ateratako argazkian.

Aldaketa behar zenuela esan duzu. Zergatik?

Beno, egoera astun samarra bihurtzen hasi zen Realean nengoela. Batez ere mentalki. Egunero gauza bera egin izan dut urte askotan: Zubietara joan, etxera buelta, partidak... Urte batzuk atzera izan nuen lehen taldearekin debuta egiteko aukera, baina azken aldian sumatzen hasia nintzen Realeko zikloa agortzen hasia zela, hazten edo hobetzen segitzeko aukerarik ez zegoela, eta talderen batean utzita jokatzeko aukera emateko eskatu nion klubari. Ez zen erraza izan, Realak ez zuelako nik beste talderen batean utzita joaten uzteko prestutasun handirik.

Andoni Urbistondoren elkarrizketa. Irudian, bi urnietarrak Lasesarre ondoko tabernan.

Barakaldo. Jendeak hemen BEC erakustazoka edota IKEA daudelako ezagutzen du. Zuk?

Nik ere ez dut askoz gehiago ezagutzen, ez pentsa. Castro Urdialesen bizi naiz (Kantabria), beste 12 taldekide bezala, eta egunero Lasesarrera entrenatzera etorri eta hara bueltatzen gara. Batzuetan, libre daukagunean-eta bertako gune komertzialen batera etortzen gara, arratsalde pasa, baina bestelakoan Castron egiten dugu bizitza: batzuk ingelesa ikasi, besteak beste ikasketa batzuk, han bertan osteratxoa egin...

Barakaldo 2. B mailan dago, eta lider da. Gustura?

Bai, noski. Talde polita daukagu, eta ni ere taldean gero eta sartuago nago. Aintzat hartu behar da liga hasteko aste bakarra falta zela iritsi nintzela hona, eta taldean sartzea ez zen erraza izan. Entrenatzaileak dagoeneko hamaikako bat erabakita zeukan, normala den bezala, eta nik lana egin behar izan dut jokatzen ari zirenei postua kentzeko, ondo jokatzen ari zirelako.

Pixkanaka lortu dut, eta zenbait partida hasieratik jokatu ditut. Gero eta hobeto aritzea espero dut, minutu gehiago jokatzeko.

Lau gol sartu dituzu. Goleatzaile petoa zarela jartzen du sarean zure izena klikatuta. Kopuru ona da hori? Konforme zaude egindakoarekin?

Ni gustura nago. Egia da aurrelaria naizela, eta goleatzaile sona dudala, baina futbolean dena ez da gola sartzea. Entrenatzaileak askotan kontrako taldeko defentsari presioa egiteko eskatzen dit, baloi luzeetan jabetza irabazi eta taldekideei aurrerantz egiteko denbora ematea... Jokalari batek funtzio asko bete behar ditu, ez golak sartu bakarrik. Ni eskatzen didatena egiten saiatzen naiz, eta aurrera.

Egia da golak egiteaz gain beste dohain batzuk edukitzea ere ona dela, baina zu zerbaitegatik ezaguna bazara, golak erraz egin dituzulako da...

Bai, etiketa hori hartu dut denborarekin. Egia esan buruz-eta ondo errematatzen dut, 1.83 naiz luzean, eta sena badut, bai, jokaldiak bukatzeko. Baina esandakoa, golak egiteaz gain, beste gauza asko egin behar dira futbolari profesional izateko.

Zer moduz taldean, taldekideekin? Lider izatea gozoa da, baina kudeatzen erraza?

Bai, jokalarien izaerak egiten du erraz. Inor ez da ezinbestekoa sentitzen taldean, eta pentsamolde horrek bat egiten du bete-betean nirearekin. Esan nahi dut, nik taldearen hobe beharrez jokatzen dut, eta ni bezala, taldekide guztiek.

Denok nahi dugu Barakaldo CF taldea Bigarren Mailan jokatzen ikustea. Nire gol kopurua ez da garrantzitsua izango, taldeak desio dugun igoera hori lortzen badu.

Urte erdi inguru daramazu dagoeneko etxetik kanpo. Moldatzen al zara?

Pixkanaka (barrez). Ni gurasoen etxean bizi izan naiz beti, eta orain bakarrik pisu batean. Sukaldean-eta hasi naiz, mokadutxoak prestatzen, eta neskalaguna bisitan etortzen denean hor aritzen gara han eta hemen ikasitakoa praktikan jartzen. Bestelakoan bai.

Ia egunero entrenatzen dugu, asteburuetan partida, eta egun pare bat libre ditudanean, atseden hartzen dut, edo gurasoei eta aitonari bisita egin. Ez naiz aspertzen.

KIROL ALBISTEAK

Ekainean Realarekin daukazun harremana bukatuko da. Gero zer?
Ez dakit, eta ez nau arduratzen. Ikusiko da. Igual hemen jarraituko dut, igual beste nonbaiten… Bizitza motza da, eta uneoro gustuko dituzun gauzak egin behar direla ikasi dut. Gustura zauden toki batean bada, nire kasuan bezala, ba zirkulua osatu egiten da.

Realera bueltatzeko ateak itxita al daude?
Ez dakit. Itxura batean hala dirudi. Urte asko egin ditut han, eta azken urtean irtetea eskatu nuen, ez nuelako aukera handirik ikusten. Pentsatzen dut beste lehentasun batzuk dituztela, beste gazteren batzuekin saiatu nahiko dutela, eta kito, ez dago besterik.

Haserre zaude Realarekin?
Ez, ez. Hau futbola da, eta futbol profesionalean eguneroko ogia da halako gauzak gertatzea. Ni Realean egon naiz, bigarren taldean ia beti, eta epe hori bukatzear dago, beste batzuk etorri direlako. Ez diot ezer leporatzen Realari, nire bizitzako parte inportantea izan da.

Lehen esan duzu ekainean zer gertatuko den ez dakizula. Eta hurrengo urteetan? Arrastorik bai?
Ekainean ez badakit, denboran urrunago ere ez.

Esan nahi nuen, zure burua futbolari moduan ikusten duzun edo ez….
21 urte ditut eta hobetzeko tarte handia. Baiezkoan nago, baina zure galderarentzako erantzunik ez daukat, ez dakit etorkizuna iragartzen. Niri gustatuko litzaidake futbolari izaten jarraitzea, baina halakorik lortzen ez badut, ba bizitzari buelta bat eman eta bizitzen segi beharko dut.

Iker Hernandez Valencia CFko Santi Mina jokalaria bazterrean uzten, aurtengo kopako Valencia CF-Barakaldo futbol partidan.

Ze mailatako jokalaria da Iker Hernandez? Esan nahi dut, 2. Mailakoa, 2. B. mailakoa, Lehen Mailakoa…
2. B Mailan jokatzen ari naiz orain, beraz nire maila hori da. Akaso etorkizunean koskaren bat edo bi igoko ditut, baina gaur egun 2. B mailakoa naiz.

Pentsatzen dut lagungarri izan dela zuretzat aita bere garaian jokalari profesionala izan zela…
Erabat. Egun futbol profesionalaren inguruan daukadan pentsamoldea aitak irakatsia da. Berak urte batzuk egin zituen Realean, eta mundu hau ni baino hobeto ezagutzen du. Egun bizitzen ari naizena etor zitekeela bazekien, eta une hori ahalik eta ondoen gainditzeko bideak erakutsi dizkit. Hori eta gauza gehiago.

Adibidez?
Ez etsitzen. Biak, aita eta ama, oso exigenteak izan dira nirekin ikasketen kontuan. Bizibidea banuen Realeko jokalari izanda, baina beti nire gainean egon dira ikasketak egin nitzan. Irakasletza egiten ari naiz. Ikasgai honetan alboratuta daukat, talde aldaketarekin-eta ez nekielako non jokatuko nuen. Etorkizunean ikasketei heltzeko asmoa daukat berriro.

Praktikak-eta egin nituen Egape ikastolan, eta asko gozatu nuen. Futbolari bideak luze irauten ez badu irakasle izatea gustatuko litzaidake.

Gutxitan ikusi izan zaizu Urnietako kaleetan hara eta hona.
Bai, ez daukat kalean ibiltzeko ohitura handirik. Batetik nekea, bestetik etxekoia naizela, ahal dudan guztietan etxean geratzen naiz lasai-lasai. Asko jota kafetxoren bat, koadrilarekin, edota zineman pelikularen bat. Gauez oso gutxitan irten naiz, eta aurrerantzean ere ez dut uste gehiegitan irtengo naizenik.

Zu zeu eta Nahikari Garcia. Auzo berekoak, parke berean hasi zineten baloiari ostikoka, ezta?
Bai, irakurri nuen bere elkarrizketa, eta jarri duten estalkiaren inguruan ematen zuen iritzia. Belaunaldi batean gazteen izateko era, aisialdi lehentasunak erabat aldatu dira. Guk etxetik kalerako joera geneukan, ez genuen minutu bakar bat bera pasatzen etxean. Baloia hartu eta kalera. Egun, gazteek kaletik etxera, edo lokaletara egiten dute bidea. Eta etxean, ordenagailua, telefonoa… kritiko samarra naiz egoera horrekin, nahiago dut gure garaiko gaztaroa.

ALDAKETA
"Realeko jokalaria naiz kontratuz, baina utzita joan nahi nuen norabait, eta Barakaldora etortzeko aukera baliatu nuen"

ZERGATIA
"Urte batzuk atzera lehen taldearekin debuta egin nuen, baina azken aldian sumatzen hasia nintzen Realeko zikloa agortzen hasia zela"

REALA
"Pentsatzen dut beste lehentasun batzuk dituztela, beste gazteren batzuekin saiatu nahiko dutela, eta kito"

BARAKALDO
"Ez dut gauza askorik ezagutzen, BEC eta gune komertzialak. Castron bizi gara futbolari gehienak, han egiten dugu bizitza"

HASIERA
"Liga hasi baino astebete lehenago iritsi nintzen, eta kosta egin zitzaidan talde dinamikan sartzea; orain hobeto nago, liderrak gara"

ETORKIZUNA
"Gustatuko litzaidake futbolari izaten jarraitzea, baina halakorik lortzen ez badut, ba bizitzari buelta bat eman beharko diot"

IKASKETAK
"Irakasletza ikasten ari naiz. Aurten alboratuta dut, baina ekingo diot berriro ere. Egapen praktikak egin nituen, eta oso gustura"

Gipuzkoako Foru Aldundia
Euskara Zuzendaritza

Oharra: Biltzar argitaratzaileek ez dute beregain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien gaineko inolako erantzukizunik.

Aiurri BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA · Manuel Larramendi Kultur Bazkuna · INISTORRA · TOKIKOM · Ekoizlea: ERROITZ BALTZU MUGATUA · Laguntzaileak: Eusko Jaurlaritza, Gipuzkoako Foru Aldundia · Aldizkari honek bi udalerri hauen dirulaguntza jasotzen du: ANDOAINGO UDALA, URNIETAKO UDALA

Argitaratzailea: ERROITZ BALTZU MUGATUA

Aiurri eskuragarri: Etxez etxeko harpidetza-sistema. Andoainen urte osoko harpidetza-saria 35 eurokoa da. Urnietan, 30 euro. Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra: Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain. Tel.: 943 300 732. Faxa: 943 300 731. **@:** andoain@aiurri.com. **Webgunea:** www.aiurri.com

Zuzendaria: Jon Ander Ubeda. andoain@aiurri.com. **Erredaktoreak:** Xabier Lasa, Joxeba Lizeaga, Izarne Olano eta Jon Unanue.

Diseinua: Maddi Trutxuelo eta Jon Ander Ubeda. diseinua@aiurri.com. **Publizitatea:** Fernanda Irazu. publizitatea@aiurri.com

Zorion agurrak, merkatu txikia: diseinua@aiurri.com. www.aiurri.com. **Lege Gordailua:** SS-1078/04. **ISSN:** 1698-4870. **Tirada:** 4.000 ale.

Kudeatzailea, banaketa arduraduna: Garbiñe Ugartemendia. idazkaritza@aiurri.com Tel.: 943 300 732

Banatzaileak: Mikel Arregi (Andoain), Garazi Usandizaga (Urnieta). **Inprimategia:** Zeroa Multimedia. Huarte–Iruñea.

Agenda

OTSAILAREN 4TIK AURRERA • AGENDAN IRAGARTZEKO: andoain@aiurri.com

Zinema

Andoain, Bastero

- **"Mia madre".**
  Larunbata, 6. 19:30, 22:00.
  Igandea, 7. 19:30.
  Astelehena, 8. 19:30, 22:00.
  Haurrentzat: **"Yoko"**.
  Igandea, 7. 17:00.
  Astelehena 8. 17:00.
  Datorren asteburuan:
  "Los odiosos ochos".

Urnieta, Sarobe

- **"Atrapa la bandera".**
  Igandea, 7. 17:00.

Santa eskea

Andoain

- Kantu erronda:
  18:00. Dr Huitzi kalea.
  Otsailak 4, osteguna.

Urnieta

- Kantu erronda:
  16:00. Entsegua, Lekaio.
  17:00. San Juan plaza.
  Otsailak 4, osteguna.

Erakusketak

Andoain

- Maskarak Urigainen.
  Otsailak 4, 5, 8:
  18:00-19:30.
  Otsailak 6:
  10:30-13:30 / 18:00-20:00.
- Jose Angel Yanci Urtasunen marrazkien erakusketa Basteron.
  Otsailaren 27ra arte.

Inauteriak

Urnieta

- **Otsailak 5, ostirala:**
  17:00 Trebetasun probak minutu batean.
- **Otsailak 6, larunbata:**
  12:00 Poteoa Kantoi tabernatik.
  14:00 Herri bazkaria San Juan plazan. Tiketak 2 eurotan salgai daude Xauxarren eta Gurian. Erosteko azken eguna, otsailaren 4a.
  17:00 Kalejira San Juan plazatik Bosko Anitz aisialdi taldearekin.
  17:30-20:00 Karroza eta mozorroen desfilea Idiazabal kalean.
  20:30 Mozorro lehiaketaren sari banaketa ekitaldia Idiazabal kalean jarritako eszenatokian.
  22:00-24:00 Kontzertu kalejira: Rock KamBroom.
- **Otsailak 8, astelehena:**
  17:00 Mozorro lehiaketa.
- **Otsailak 9, asteartea:**
  17:00 Singstar txapelketa.

Farmaziak

Eskualdea

- Andoain: Ansa.
  Urnieta: Castilla (Hernani).
  Urtarrilak 30 eta 31.
- Gauez: Urrutia (Hernani).
  Otsailak 6 eta 7.

Inauteriak

Andoain

- **Otsailak 4, osteguna:**
  16:15 Mozorro festa Goikoplazan.
  17:30 Beldurraren etxea, Gazte Lokalean.
  18:00 Maskara lehiaketaren sari banaketa Urigainen.
- **Otsailak 5, ostirala:**
  17:30 Mozorro festa eta merienda Gazte Lokalean.
  18:00 Kontzertu bufoa Basteron.
- **Otsailak 6, larunbata:**
  11:00 Buruhandi eta erraldoien konpartsa.
  12:00 Mozorroak eta konpartsak, kalez kale. Soinuak taldearen kalejira.
  17:00-20:30 Mozorro desfilea Txitibar plazatik Goikoplazara.
  23:00-03:00 Disko festa Nafarroa plazan.
- **Otsailak 7, igandea:**
  12:00 Mozorro eta konpartsak kalez kale, herrian zehar.
  17:30 Disko festa haurrentzat.

Lehiaketa

Andoain, Bastero

- Inauterietako argazki lehiaketa. Info: andoain.eus.
  Epea: Otsailak 15.

EKITALDI HAUEK ETA GEHIAGO WWW.AIURRI.COM/AGENDA.PHP ATALEAN

Isabel MARZOL ERASO andrea,

Urtarrilaren 29an hil zen, 63 urte zituela.

Ez da bi eguneko kontua izan
gure alde egin dezuna;
goizero STOPen, leial ta jator
herritarrentzat laguna.

Zure oroitzapena izan dadila
andoaindarren oihartzuna;
aiurri prestu, euskaldun zintzo,
zu bai lankide kuttuna!

Manuel Larramendi Kultur Bazkuna | Aiurri, Beterriko aldizkariak. Beterri, 2016ko otsailak 2.

Aiurri · MARAMENDI

ZORION AGURRAK

ZORIONAK



Hilaren 8an **Araia Goñi**k 5 urte eta osaba **Jon Artola**k 25 urte beteko dituzue. Muxu handi bana. Etxekoak.
AMEZKETA ANDOAIN

ZORIONAK



Hilaren 12 eta 15ean, **Ainhoa**k eta **Oihana**k 5 eta 2 urte beteko dituzte. Andoaingo familiaren izenean, ondo pasa!
ANDOAIN

ZORIONAK



Jon Loiartek 4 urte hilaren 14an. 4 urte, 4 kandela eta 11 muxu! Ilargiraino eta buelta maite zaitugu. Maddi, aita eta ama.
ANDOAIN

ZORIONAK



Aner Martinez Atxagak 2 urte beteko ditu otsailaren 18an. Zorionak maitia! Ondo pasa. Zure gurasoak. Maite zaitugu.
URNIETA

ZORIONAK



Manexek otsailaren 6an, 12 urte beteko ditu. Etxeko umea gixontzen ari zaigula!! Zorionak!
ANDOAIN

ZORIONAK



Ekhiñe etxeko printzesak bi urtetxo beteko ditu otsailaren 8an. Primeran pasako dugu zure urtebetetzean!
ANDOAIN

ZORIONAK



Mundiala zea sis, segi horrela eta earki ospatu ihauterietan! muxuuu! Uxu ta Noni. Zorionak **Izorne**!, zorionak sis!
ANDOAIN

ZORIONAK



Otsailaren 4an etxeko sorgintxo politaren lehen urtebetetzea ospatuko dugu! Maite zaitugu **Uxue**!
ANDOAIN

ZORIONAK

Nemesio Zatarainek urtarrilaren 23an urteak bete zituen. Etxekoen eta hiru bilobenpartetik: Unax, Aner eta Oinatz.
ANDOAIN

ZORIONAK



Elene Amantegia Aldaregiak urtebea beteko du otsailaren 13an. Ondo ospatu! Zure Urnietako lagunak.
ANDOAIN

Oso erraza da, eta dohainik: diseinua@aiurri.com

"El florido pensil neskak" antzezlana Saroben

Tanttaka teatroak urteko obrarik entzutetsuena izango dena abiatuko du laster, Urnietako Saroben hasita. Bertan izan dira azken asteotan antzezlanaren prestakuntza lanetan. Aktore ezagunak arituko dira lanean: **Elena Irureta**, **Loli Astoreka**, **Gurutze Beitia**, **Itziar Lazkano** eta **Teresa Calo**.

OTSAILAK 14, IGANDEA
19:00. EUSKARAZ. 4 EURO.
Sarrerak salgai Sarobeko bulegoan otsailaren 8tik aurrera, eta egun berean ordu erdi lehenago leihatilan.
19:00. Euskaraz. 4 euro.

SINOPSIA
Gerraondoko Espainiako hezkuntza sistemaren krudeltasun absurdu eta zentzugabea jasaten duten bost neskatoren egunerokoa kontatzen du. Eskola gizartearen eta horren ideologia menderatzailearen isla zen. Emakumeak izan ziren ekintza moralizatzaile horren helburu; izan ere, ezkontzea eta etxeko lanak egitea zen beren berezko bidea. Eta beren ibilbide profesionala, familia osatzea eta seme-alabak edukitzea.

Horretan bat zetozen ia guztiak, emakumeak zein gizonak: maistra, apaiza, gurasoak, moralistak, kupletistak, eleberri arrosen idazleak, baita gimnasia-irakasleak ere. Eszena guztietan ikusiko da bi emakume mota baino ez zeudela: zintzoak eta besteak.